

ALKATEAREN PROBIDENTZIA

2025eko uztailaren 15eko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren EBAZPEN bidez argitara eman zen enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2025eko dirulaguntzen deialdia (EHAA, 2025eko uztailaren 31, osteguna, 144. zk.)

Oñatiko Udalak 4 lan-kontratu egingo ditu dirulaguntza deialdi honen bitartez:

- 2 kale garbitzaile, 4 hilabetetarako, %100 jardunaldian.
- Administrari laguntzaile bat, 6 hilabeterako, %60ko jardunaldian.
- Administrari bat, 6 hilabeterako, %60ko jardunaldian.

Kale garbiketako peoien lanposturako jarraian zehazten diren **ezinbesteko baldintzak** zehaztu dira:

- B motako gidabaimena izatea eta ibilgailuak gidatzeko inolako eragozpenik ez izatea.
- 2025eko uztailaren 31ko EHAA argitaratutako "Enplegua sustatzeko toki-ekintzaterako 2025eko dirulaguntza deialdia-ren" 2. artikuluko 4.1. puntuan (1. Mota.- Enplegua sustatzea) zehazten diren baldintzak betetzea..

Baloratu beharreko baldintzei dagokienez honako hauek izango dira:

- Oñatiko kale, auzo, eraikin eta leku nabarmenen ezagutza izatea.
- Euskara. Oinarrizko maila bat izatea.
- Antzeko lanetan esperientzia izatea.
- Langabezia egoeran igarotako denbora.

Hori guztia kontuan izanda, honakoa xedatzen dut:

1.- Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuari eskatzea lan-kategoria eta baldintzak betetzen dituen hautagaiak aukeratzeko.

2.- Honako profil hau eskatzen da: **Kale garbiketako peoia, Zerbitzu Sailera atxikitua.**

- Lan kontratu mota: Enplegu-politika aktiboko programei loturiko kontratua.

3.- Hautagaiak hautatzeko, **balorazio-irizpide** hauek hartuko dira kontuan:

3.1 Ariketa teorikoa (gehienez 5 puntu).

Test erako galdera-sorta bati erantzun beharko zaio eta jarraian azaltzen diren gaiei buruzko ezagutzak baloratuko dira:

- Oñatiko kale, auzo, eraikin eta leku nabarmenen ezagutza: 3 puntu.
- Euskarazko ezagutza: 2 puntu.

3.2 Lan-esperientzia (gehienez 3,2 puntu):

Garbiketa arloko esperientzia baloratuko da;

- Kale garbiketako peoi bezala izandako lan-esperientziatik: 0,2 puntu hilabeteko.
- Lanpostuarekin zerikusia duten beste garbiketa mota batzuetan izandako lan-esperientziatik: 0,1 puntu hilabeteko.

Lanaldi partzialean egindako lanak lanaldi osoaren baliokidetzat hartuko dira.

Administrazio publikoan izandako lan esperientzia lan zerbitzuen ziurtagiriaren bitartez egiaztatu beharko da.

Sektore pribatuan izandako lan esperientzia, lan-bizitzari buruzko txostenaren edo lan kontratuen bidez egiaztatu beharko da.

3.3 Langabezia egoeran igarotako denbora (gehienez 1,8 puntu):

Azken 18 hilabetetan langabezia egoeran egondako denbora baloratuko da.

- Langabezia egoeran egondako hilabete bakoitzeko: 0,1 puntu

4. Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

- Epaimahaiburua: Jessica Valencia Caceres. Azpiegituretako aparejadorea
- Mahaikideak:
 - Izaskun Querejeta. Antolakuntza eta giza baliabideen teknikaria.
 - Unai Pinto. Kale Garbiketako arduraduna.
- Idazkaria: Unai Kortabarria. Sozioekonomia saileko teknikaria.

Oñatin, 2025eko urriaren 30ean.

Sin.: Izaro Elorza Arregui
Oñatiko Alkatea

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	ALKATE PROBIDENTZIA Kale garbiketako peoia_Enplegu sustatzeko toki ekintzeratarak